

Kidegoa: 2. Hezkuntza	Espezialitatea: Fabrikazio Mekanikoaren Antolaketa eta Proiektuak	Hizkuntza: Euskara
BIGARREN PROBAREN A ZATIA BALORATZEKO IRIZPIDEAK		
<p>Programazio didaktikoak ez baditu betetzen VII. eranskinean adierazitako formazko betebeharrak, probaren zati horri dagokion puntuazioaren % 50 kenduko zaio izangaiari. Hauek dira formazko betebeharrak: <i>“Programazio didaktikoak gehenez ere 50 orrialde izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimitu gabe. Grafiko, taula, orri-oin eta goiburuetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Azala nahi bezala diseina daiteke. Gutxienez ere 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan”.</i></p>		PUNUAZIOAK / GEHIENEO MURRIZKETAK
Antolaketa:		2 puntu
Programazioaren sarrera eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabera testuingurua ematea.		1
Ongi planteatuta egotea programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziarioaren logika.		1
Eduki teknikoak:		2 puntu
Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.		1
Programazioak ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzaren estandarrak zehazten ditu, bai gako-gaitasunak eskuratzeari, bai eta helburuak erdiesteari dagokionean ere.		1
Eduki didaktikoak:		6 puntu
Ikasturterako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.		1,75
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.		1,75
Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarritz hezkuntza laguntzako premia berariazkoak dituzten ikasleentzako neurriak.		0,5
Programazioa modu argian azaltzea.		2

Zuzentasun ortografikoa (murrizketa)	2 puntu
Ortografia akatsak	
Gramatika akatsak	
<p>Programazio didaktikoa izangaiak egin behar duenez, eta horrek lan pertsonala eta indibiduala eskatzen duenez, programazio plagiatuak aurkezteak edo izangai batzuek programazio didaktiko bera aurkezteak esan nahi du hori egiten duten izangaiak zero puntuko kalifikazioa lortu behar dutela probaren zati honetan.</p>	